

# Funtzesko Baliabideak

Gure proiektua burutzeko, gure eskuragarri ditugun baliabide guztiak hartu behar ditugu kontuan, eta ahalik eta probetxurik handiena atera behar diegu. Alde batetik, ditugun baliabide motak aztertu ditugu, eta **baliabide fisikoak, intelektualak, humanoak** edo **finantzarioak** diren kontuan hartuta sailkatu ditugu. Horrekin batera, baliabide horiek balio-proposamena garatzen, bezeroekiko harremanetan eta diru-iturriak handitzen lagunduko dutela espero dugu.

Argi daukagu gure ideia: mekanismo berritzaile batekin 2 ataletan banatu ahal diren zapatilak saldu. Era berean, ingurumena errespetatuko dugula eta ahalik eta '*eko-friendly*' gehien izaten saiatuko garela adostu dugu. Horretarako, baliabide fisiko guztiak gure herrialdean aurkitzen saiatuko gara. Baliabide fisikoak, hala nola instalazioak (bertan fabrikatu eta ekoitziko dira zapatilak), enpresaren barne-aldea kontrolatu eta administratuko dugun bulegoak (diseinua, sare sozialak, bezeroarentzako laguntza...), Gasteizen egongo dira nagusiki. Gure helburu nagusia salmentak handitzea eta mundu osoan zehar hedatzea denez, baina oraingoz enpresa txikia garenez, hemendik hasiko gara, eta exito kasuan, beste leku handiago batera joango gara.

Zapatilen ekoizpenari dagokionez, "[Tortola 1947](#)" enpresara eramango dugu. Oinetakoak ekoiztera bideratutako enpresa da, esperientzia eta cache handikoa. Akordio batera iritsi gara haiekin, eta kontratatuko ditugu, zapatilak eta zola ezkutagarriak egin diezazkiguten. Beste marka batzuek bezala, web orri bat izango dugu bezeroek erosketak egin ditzaten eta Shopify plataformarekin sortuko ditugu guk. Lehen aipatu dugun bezala, oraingoz bidalketa maila nazionalean baino ez da izango, baina horrek ez du esan nahi garai batean beste herrialde batzuetara bidali ahal izatea. Ekoiztutako produktuak Tortola 1947 ingurunean dagoen biltegi batean gordeko ditugu eta banaketaren eta logistika-sareen gai guztiak [Correos](#) enpresak administratuko ditu.



Gure hasierako bulegoak + Tortola 1947 lantegia + Correos

Alde intelektualetik, adostuta dago gure marka ideia bezala pantailaratuko dugula. Garrantzitsua da horrelako baliabide intelektualak izatea, plagioetatik babesteko eta lege-babesa izateko. Enpresa (gubernaren laguntzak jasotzeko aukera izateko), zapatilen marka eta ideia erregistratuko ditugu. Era berean, hainbat aseguru kontratatuko ditugu; lan-arriskuko aseguruak, fabriketarako eta bulegoetarako, gure langileentzat... Gainera, eduki mota hori guztia kudeatzen lagunduko digun abokatu bat izan beharko dugu. Azkenik, patenteen eta aseguruen kostua aztertu dugu, eta oso onuragarria dela erabaki dugu, hasieran kostu handia izan arren.

Inf:[Patente kostuak](#), [Aseguruen kostua](#) eta [Abokatu kostuak](#)



Bakoitzak eman ditzakeen giza baliabideak praktikan adostuta daude. Ziur aski, horrelako baliabideak garrantzitsuenetakoak izango dira, ez baitizu ezertarako balio munduko tailerrik handiena izateak, edo ideiarik onena patentatuta edukitzeak, hori egin dezakeen inor ez baduzu. Badakigu enpresaren bihotza eta arima garela, eta gu geu izango garela hau atzerrira eramango dugunak. Denoi zerbait ondo ematen zaigunez,

lana modu ekitatiboan banatuko dugu. Ikaskide bati artisautzak ondo ematen badio, tailerrera joango da fabrikatzera. Aldiz, beste pertsona bati teknologia ondo ematen bazaio, bulegoetara eramango dugu bidalketen logistikarekin lan egiteko. Pertsona bat enpatikoa bada eta pertsonekin ondo konekta badaiteke, bezeroari laguntzeko prest bidaliko da, eta hau, postu guztiekin.



Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, finantza-baliabideak. Ziur aski, hasieran oso erraza izango da, enpresa txikia gara eta ez dugu diru-sarrera handirik izango salmenta batzuk egin arte. Horregatik, kontuan hartuko ditugu gure baliabide guztiak, amore ez emateko. Gobernuaren bidez hainbat laguntza aztertzen aritu gara, eta ziur gaude txosten baten bidez laguntza horietakoren bat arazorik gabe eskuratu ahal izango dugula. Bestalde, hasieran mailegu bat eskatu beharko dugu ekiten hasteko. Horien arriskuak baloratzen eta aztertzen aritu gara, eta erabaki dugu, nahi edo ez, bat hartu beharko dugula, baldin eta gainerako baliabide guztiak ordaindu nahi baditugu: materialak, bidalketa-kostua, eskulana, alokairua, aseguruak...

Inf: [Gobernado Laguntzak](#), [Beste Laguntza Motak](#) eta [Maileguak](#)

